



# NORK EZ DU NAHI ?

Doinua: Ene seme maitea

Neurria: Lau puntuko txikia (ip) / Zortziko txikia (hg)



Odei Barroso Gomila

- 1** Nork ez ditu busti nahi bi oinak **uretan**, eguzkipean egon **asteburuetan** hondarrean ibili bi zango **punttetan** desio duen horrek izanen du **bertan!**
- 2** Nork ez du dastatu nahi zuhaitzen **itzala**, belar gainean etzan, ximurtu **azala**, eta arnasa hartu inoiz ez **bezala**. Desio duen horrek izanen du **hala!**
- 3** Nork ez du sentitu nahi haize fin **leguna**, goizeko ihintza eta lakuen **lurruna**, egunaren argia, gauaren **iluna...** Inguruan daukagu desio **duguna!**
- 4** Ingurumenak eman dizkigu **opari** leku, momentu eta desio **ugari** beraz pentsa dezagun gaudenok **kantari** Zer ematen diogun **ingurumenari?**

